




BETERRIKO ALDIZKARIA



# AIURRI

1996ko urriaren 11a. 44. zenbakia. Dohain banatzen da.

**Azoka,  
aterik gabeko  
denda**





Urtebeterako  
ezarpenagatik, bizi  
guztirako oparia.



Eta gainera  
tasa ona.

**%4**

5 piezako eltzeria + %4ko interesa,  
500.000 pta. urtebeterako sartzeagatik.  
Informa zaitez gure sukurtsaletan  
goizez nahiz arratsaldez



Eperako libreta

**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



**Goiko**  
OPTIKA

Arteta kalea z/g  
☎ 59 09 55  
ANDOAIN

**ANDOAINGO**  
optika BERRIA

ESKAINNTZA BEREZIA  
JUBILATU ETA  
PENSIONISTENTZAT  
URRI ETA AZAROAN

**BETAURREKOAK**  
**7.500 Pta.**



1. **AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK**  
Txomin Garmendia: *Itxaropen printzak.*
2. **GALDEZKA.**  
Eta zu joaten al zara ikastolen aldeko jaialdietara?
3. **ADUNA**  
Aduna euskaltegi bihurtu dute.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**  
Ikastolako kanpaldien 25. urtemuga.  
EHE-ren nazio mailako kanpaina.  
Erakunde ez gubernutarrei dirulaguntzak.  
Dendariek euskara ikasteko dirulaguntzak.
7. **ASTEASU.**  
Ganadu eta barazki erakusketa arrakastatsua.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**  
Joxe Angel Apeztexea preso kalean.  
Amaia Zubiria: "Emakume euskaldunen bene-  
tako ahotsa ezagutzeko dago".
10. **ZIZURKIL.**  
Gripearen aurkako txertoa.
11. **ENPRESA.**  
European school hizkuntz akademia.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**  
Azoka, aterik gabeko denda.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**  
Josu Tellabide.
- 16-17. **KULTURA.**  
Asteasuko 1. artisau erakusketa.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oartzabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Ainhoa Oartzabal eta Ainhoa Aiartza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 ISSN: 11354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



## Itxaropen printzak



**TXOMIN GARMENDIA**

**G**ure erri onen arazoak asko izango dira noski, baiña larrienetako bat, lanik-eza izango degu. Lanetik degu etorkizuna, lanetik degu bizi-poza, eta ortik dabil urri batez ere gazteria. Nork uste zezakean orrelakorik orain dala urte batzuk? Miranda tik gorako jende ori, trenak kargatuta gure errira zetorren ura ere, ez ote zan gehiegia? Orduan geiegi eta orain gutxiegi: erdi-bide bat aurkitzen zailla degu nunbait!

Iñoizka-iñoizka, itxaropenezko berriak ere iristen zaizkigu eta azkenengoa. Aldundi edo Diputazioak eman diguna: industri-lekuak jartzera dijoala alegia kanpotarrak etorri ditezten pabrikak altxatzera. Beste-beste, Aduna'ko erribera aukeratu du oratarako eta usteak ez ditezela ustel gelditu.

Euskalerrira oso beartsua izana degu: aurantza, baserria, artzantza eta basoa besterik etzan garai aietan. Esan liteke, Amerika'ri esker izan zutela salbazioa emengo seme-alaba askok. Adibidez, Argentina'ko teleponoko listinetan millaka eta millaka euskal abizen aurkituko ditugu.

Industria izanda gure erri au piztu eta ederbegira ipiñi zuna: industri orren sortzailleak berriz, bertakoak genitun: Etxeberria, Orbegozo, Luzuriaga, Kalparsoro, Zaragueta, Arin, Urange eta abar eta abar. Orain berriz, kanpoko gizon eta diruan zai gaude industri ori berpizteko. Nun dira lengo zaletasunak? Orain ez al da emen gizonik? Betoz kanpoko jende oiek, betor lanaren ugalmena; baiña ez pentsa ezaugarri onegiak diranik. Besteren mende bizitzen oitutakoak gera euskaldunak eta aurrera ere ala izan bearko ote degun da nere errezeloa.

Dana bestek eman zai jarri gera eta ori ona izan dedilla gaiñera eta ortatik asko ugaldtu da emengo lanik-eza. Eskolak eta aurrerapenak lanik-eza ekarri dutela ez dago zalantzik. Adibidez, lanik ez dagoela-ta nork joan nai du gure artetik lan gogor batera? Eskola au ikasi nun nik eta ortan aurkitu nai nuke lana, esango digute gazte askok eta bitartean, gure basarritan eta basotan, portugesak eta ez dakit nungoak ikusiko ditugu lanetan. Errijoa'ko maats biltzailleari buruz ere esan liteke zer-bait, baiña aiatu dezadan Prantzi'koa: bertan bi edo iru milloi lanik gabe egon arren, Espai'ko ego-aldeetik joan dira amar edo amabi milla pertsona maatsa biltzera.

Beti izan naiz eskola eta ikastearen aldekoa, baiña gaur dagon ikasteko moduak badu bere arantza: ogei urte edo ingurura arte, liburu tartean bakarrik dabillanak zer aukera dauka gero, ikasi dun artatik kanpo? Orrela, nekez aurkituko ditugu igelseroak, arotzak, argiñak eta antzekoak. Ez da askotan guk uste degun ainhatekoa emengo lanik-eza. Datozen industri edo pabrika berri oiek izan dezatela makinaren bidez lana errez egiteko modua; oratarako gertutuak gaude.

Gaurko gure jokabide eta pentsamoldeak ikusita, ez dirudi lanik-ezak azkenik izango dunik, itxaropen printzak baditugun arren. Naiago nuke oker banengo.



Aldizkari honek Futbol Jaurritako Kultura Salaren Laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren Laguntza jasotzen du

## ETA ZU, JOATEN AL ZARA IKASTOLEN ALDEKO JAIALDITARA? ZERGATIK?

*Elgoibarren izan da ikastolen aldeko azken jaialdia, kilometroak 96, alegia. Nafarroa Oinez ere berehala ospatuko da eta jende ugari hurbilduko da Etxarri Aranatzera bertako ikastolari laguntza emateko. Izan ere, ikastolen aldeko nola euskarren aldeko ekimen hauetan haur, heldu nahiz*

*gazte asko izaten dira. Bakoitzak gogoko dituen gauzak egiteko aukera dauka, gainera. Baina jaialdi hauetara ikastolei laguntza emategatik, festan ibiltzeagatik, edota finean, herritarrek zergatik joaten diren jakin nahi izan dugu. Hona hemen zer erantzun diguten:*



### **Josune Larrañaga, langabea. Aduna.**

Bai, baina azken urteotan ez naiz askotara joan lanean aritu bainaiz. Denbora izan dudanean ordea, kilometrotan, Herri Urratsen eta jaialdi gehiagotan izan naiz. Ondo pasatzeagatik eta ikastolari laguntzeagatik joaten naiz.



### **Manoli Azpiroz, langabea. Billabona.**

Lehen askotan joaten ginen baina orain ez daukat horrelako ospakizunetara joateko astirik. Nire haurrak ikastolan ikasten du, eta beraz, oso ondo iruditzen zait horrelako gauzak egitea. Euskararen aldeko ekintzak egitearekin ados gogo oso.



### **Larraitz Otaño, ikaslea. Andoain.**

Bai, urtero joaten naiz. Koadrila guztia joan ohi gara, eta antzeko jaialdi guztietan ez izan arren, kilometrotan behintzat urtero hartzen dugu parte, nahiz eta eguraldi txarra egin. Gainera, Andoainen ospatutako kilometrotan eguraldi txarra egin bazuen ere jende asko etorri zen.



### **Maitane Aiertza, ikaslea. Asteasu.**

Bai, urtero joaten naiz horrelako jaialdietara. Gurasoekin joaten naiz, eta zirkuitoari bueltak ematen ibiltzen gara egunean zehar. Kamisetak, motxilak eta gauza gehiago erosten ditugu ikastolari laguntza emateko. Oso ondo pasatzen dut.



### **David Carrillo, ikaslea. Zizurkil.**

Ondo pasatzera bakarrik joaten naiz horrelako jaialdietara. Egia esan, ez zait asko axola euskara eta ikastolen aldeko ekintzak egitea edo ez egitea; festara bakarrik joaten naiz.



### **Maria Luisa Etxeberria, harakina. Andoain.**

Askotan joaten naiz, ia guztietara. Laister Nafarroa Oinez ospatuko da, eta eguraldi txarra egiten badu ere kotxea hartu eta bertara hurbilduko naiz; beste egitekorik ez badu, behinik behin.

**HERCULES**  
Aseguruak ARGENTARIA  
*Anaia Kortajarena*  
Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34  
**ZIZURKIL**

**VIDEO CLUB AMETS**  
Bideo zintak alokatzen dira  
**AMETS**  
CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba  
Txermin kalea, 21 beheka BILLABONA

*Joxe Ramon*  
— TABERNA —  
**PINTXO EDERRAK !!**  
Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

**Udal Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko zenbait baldintza bete behar dituzte bertako partaide izan nahi duten udalerriek. Hala nola, biztanleriaren gehiengoa euskalduna izan behar du eta udalaren funtzionamentu osoa euskaraz egin behar dute, besteak beste. Adunako Udalak euskaraz funtzionatzeko alfabetatze klaseak eskainiko dizkiete zinegotziei udal txean. Era berean, eskola hori jaso nahi duten herritarrek ere hasi dituzte klaseak euskaltegi berezi horretan.**

# ADUNA EUSKALTEGI BIHURTU DUTE

**UEMA n sartu nahi du udalak**



AEK arduratu da euskara klase horiek emateaz, eta astelehen eta asteazken iluntzetan dira. Hilaren zortzian hasi eta maiatzaren hogeita zortzira bitarte iraungo du ikastaroak, eta ikasle bakoitzak bost mila pezeta ordaindu ditu. Alfabetatze ikastaroaren helburua, udalaren funtzionamendua euskara hutsean izateko bertako zinegotziak alfabetatzea da. Ondorioz, UEMA delakoan sartzeko aukera edukiko du Adunako Udalak. Baina ikastaroa egingo duten 3 zinegotzietz gain, 7 herritar ari-

tuko dira euskara ikasten. Izan ere, herritarrei ere alfabetatze klaseak jasotzeko aukera luzatu die udalak.

## ***Klase eta maila ezberdin gehiago***

Lerro hauek idatzen aritu garen unean, zehatzu gabe zegoen arratsaldez ere klaseak emango dituzten ala ez. Era berean, alfabetatze klaseez gain euskara maila baxuagoa duten herritarrei bestelako klaseak emateko aukera eztabaidatzen ari ziren udal ardura-dunak.



- kutxa fundazioa
- fundación kutxa
- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

*Ageltseritza*  
**USABIAGA**

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa  
Tel. 69 35 60 - 69 34 35  
**20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)**

**Loitzo**

**UZTAILEAN DESKONTUAK  
KUADRO ETA  
KOLTZOIETAN**

Errota kalea, 3 - ☎ 69 21 35 BILLABONA

*Minos*

HAUR ETA GAZTEENTZAKO MODA  
JAIOBERRIARENTZAKO  
BEHAR DEN GUZTIA

**BANATZAILEAK:**

- BEBE CONFORT
- JANE • ARRUE
- INGLESINA

Kale Nagusia, 29 - BILLABONA

**ITAMAR**

Nagusia 28 - ☎ 69 39 31 - BILLABONA

**OPARIAK - BITXIAK - MODA**

**Udarako kolorea ez  
galtzeko**

**SOLARIUM ZERBITZUA**



Urte gogorrak izan ziren baina memorian ondo gordeak geratzen diren horietakoak. Harreman estuak, lanerako gogo bizia eta astero ikasle ohiekin egiten ziren bilerak izan ziren kanpaldiaren soburua. Bururatu eta egin. Atez ate diru eskean ibili ziren udalera antolatu ahal izateko, baina lortu zuten xoxa batzuk bildu eta guztia lotzea. Argedas herriko Yugo monastegian topatu zuten ostatua. Oso ona izan zen esperientzia Bardeetako lur bero eta oparoak emandako babesarengatik eta hango jendearen harrerarengatik. Oraindik ahaztu gabe dute hori guztia.

Aurten ere Nafarroan egin da kanpaldia. Tuteran. Bertako ikastolakoek gusto haundiz utzi zien Andoaingoei bere egoitza eta hantxe bertan antolatu ziren uztaileko egunetan. Guztira 110 ikasle bildu ziren, eta horiek guztiak gobernatzeko ahaleginetan 20 bat begirale eta laguntzaile.

Horiek eta 25 urteotan lanean aritutako guztiak ez ziren bildu orain hiru aste egindako eskursioan, baina batzuren batzuk bai. Yugon bertan meza eman zuen Don Eugeniok, garai hartako kanpaldietan igandero egiten zuen moduan. Eta ez ziren falta izan orduko abesti zaharrak; abestu zuten "Elkar gaitezen laginak..." dioen hura ere. Meza entzun ondoren Beraelako monastegira egin zuten bisita-buelta, eta hantxe eseri ziren bazkaritara. Postrearekin batera eman zioten Don Eugeniori egun horretarako propio prestatutako oroigarria, kanpaldi batean berari ateratako argazki zahar bat. Hunkituta, bihotz-bihotzetik eskertu zuen oparia, batez ere, kanpaldiak oroitzeko horrelako eguna antolatu izana.


Jone Larrañaga

## IKASTOLAKO KANPALDIEN 25. URTEMUGA

*Hilaren 21eko zortzi t'erdietarako jarria zuten hitzordua Goikoplazan, eta zintzo agertu ziren egun-pasa egiteko izena eman zuten berrogei lagunak, guztien buru Don Eugenio Arregi urtetan ikastolako kanpaldiaren bultzatzaile eta arima izandakoa. Autobusa hartu eta Argedaseko Yugo monastegira bidean jarri ziren, duela 25 urte ikastolako lehen udalera egin zen leku hartara bertara. Hala ekarri zituzten gogora sukaldari, begirale eta laguntzaileek urte haietako oroitzapen goxoak.*



*Duela 25  
urteko eta  
oraingo  
ikasleak*



**ONDARRETA**  
TABERNA

*Plater konbinatuak  
Ogitartekoak  
Pintxoak*

*Arkume eta  
txerrikume erreak  
enkarguz*

Ondarreta 9, behea ☎ 59 36 27 ANDOAIN



**ALOTZ**  
IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06  
ANDOAIN

## EHE-REN NAZIO MAILAKO KANPAINA

### Kanpainaren ardatza urriak 12ko manifestazioa

*Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolaturiko nazio mailako kanpainaren barruan, manifestazioa, kantari ezberdinen lanak biltzen dituen diska, kontzertuak, erakusketa ibiltariak eta mahainguruak dira nagusi.*

Irailaren 12an hasi zen EHE-ren azken kanpaina. Kanpaina hori nazio mailara hedatu dute eta bertako kideek azaldu digutenez, abertzaleei zuzendu nahi dieten kanpaina da. Euskara arazo politikoa, eta gainera, lurraldetasunarekin loturik doan kontzeptu bat dela azaldu digute. "Gaztekeraz eta frantsesez hitz egiten duten horiei beraien erabaki eta ekintzekin kontsekuente izan daitezela eskatzen diegu. Konturatu daitezela herria euskararik gabe ez dela Euskal Herria".

#### Ekintza ugari

Kanpaina horren ekintza nagusia Donostiako manifestaldia izango da. Bulebarrean egingo den manifestazio horren leloa "Euskadi euskalduna eta libre" izango da. Horrezaz gainera, Durangoko azokan Negu Gorriak, Exkixu, Mikel Laboa, Benito Lertxundi eta kantari gehiagok parte hartzen duten diska argitaratuko dute. Kontzertuak, artista ezberdinen lanen erakusketa ibiltariak eta mahainguruak ez dira faltako. Kanpaina nazio mailan izan arren Andoaingo herrian ere egingo dituzte ekintzak. Orain, ekintzak eta egutegia zehaztea baino ez da falta.

## KALE NAGUSIA BERRITZEKO EGITASMOA ONARTU DA Zorua eta azpiegituren berrikuntza egingo dute

**K**ale Nagusia eraberritzeko helburuarekin lau egitasmo aurkeztu dira udaletxean. Lan horiek aztertu ondoren Montserrat Ruiz eta Iñaki Galarragak aurkezturiko egitasmoa onartu dute.

Egitasmoak Kale Nagusiko telefono, gas eta argiaren azpiegiturak berritzea eta zorua aldatzeko lanak egitea biltzen du bere baitan. Egitasmo hori aurrera eramateak 66 milioi pezetatik gorako kostua izango du. Kale Nagusia espailorik gabeko gune komertziala bihurtuko dute, eta bidea bi era ezberdinetara asfaltatuko dute: erdialdean galipot mota batekin, eta izkine-tan herriz, beste mota batekin. Etorkizunean Kale Nagusiaren egoera nolakoa izango den aurrizusteko, auzo horretako bizilagunek, komertzioetako langileek, udalak, eta egitasmo-lan horren arduradunek zenbait bilera egin dute. Kale Nagusiko lanak urrian hasi nahi dituzte.

## ERAKUNDE EZ GUBERNUTARREI DIRULAGUNTZAK

**Aurten bost egitasmok  
jaso dute udalaren  
laguntza**

*Udaleko Gizarte Ongizate batzordeak 6.000.000 pezetako dirulaguntza zuzendu du Hirugarren Mundura. Dirulaguntza horretarako bost egitasmo aukeratu dituzte. Bost egitasmo horiek jasoko duten dirulaguntza udaleko aurrekontu orokorraren %0,5 da. Helburua Nazio Batuek gomendatzen duten %0,7ra iristea da urtetik urtera.*

**A**urten dirulaguntza jasoko duten erakunde ez gubernutarrak hauek dira: **Hirugarren Mundua ta Bakea:** Erakunde horrek Chiapaseko hegoekialdeko 85 nekazal komunitateko osasun egoerak hobetuko ditu. **Proyde-Proega:** Guatemalako biztanleei zurgintza, oihalgintza eta zitrikoen prozesu industrialaren eskolak eskainiko dizkiete. **Medicus Mundi:** Kenian sorostegi bat martxan jartzea eta bertako herritarrak era egoki batean tratatzea du helburu. **Manos Unidas** erakundeak Honduraseko nekazal komunitateen hezkuntza eta osasunaren promozioan lagunduko du. Azkenik, **Arabia Sabarawi Errepublikako lagunen erakundeak**, gazteen hezkuntzarako bekak eskainiko ditu.

#### Solidaritate beharra

Azken lau urteetan udalak eskainiriko dirulaguntza horien helburua Hirugarren Munduko lurraldeen garapena bultzatzeaz gain, herritarren kontzientziazioa eta sentsibilizazioa indartzea da. Naizoarteko solidaritatea handitzeak zein garrantzi duen azpimarratzea da dirulaguntza horiek emanez lortu nahi den azken helburua.

**ALFARO**  
**J A T E T X E A**  
EGUNEROKO MENUA  
Etxeberrieta auzunea  
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

**MIENDI**  
**AUTOESKOLA**  
  
Agustin Leitza, 11 - ☎ 300604  
20140 **ANDOAIN**



## LEIZAUR PARKEA BERRITUTA

**Haurren adinei egokitutako jolasak jarri dituzte**

*Zerbitzu batzordeak zuzenduriko parkeen politikari jarraituz, Leizaur parkea berritzea izan da 96 urteko parkeetako bere lehen ekintza. Beste parke batzuk berritzeko egitasmoak dituzte hurrengo urteetarako.*

Zerbitzu batzordearen lehen helburua Leizaur parkea guttiz eraberritzea izan da, eta haurren jolas eremuan material bereziz osatutako jolasak ezartzeak 5.000.000 pezetako kostua izan du. Parkearen berritze lanak egiteko bost proposamen aurkeztu ziren, baina bere jokuen egokitasuna eta kalitatea direla eta, Juegos KONPAN enpresaren proposamena aukeratu dute. Jolas horiekin haurrek izaten dituzten istripuak gutxitzea lortu nahi da.



*Parkeko jolas berriak*

## LANERAKO PRESTAKUNTZA IKASTEGI BAT SORTU DUTE

**Udala eta Hezkuntza fondoaren arteko akordioaren ondorio da**

*Lanerako prestakuntza ikastegia sortzearen arrazoia langabetu eta langile aktiboen heziketa beharrak betetzea da. Gainera langileei etengabeko prestakuntza emateko egoitza ere izango da.*

Ikastegi horrek helburu bikoitza izango du: batetik, langabetuak lanbide baterako prestatzea eta, ondorioz, lan munduan sartzeko aukera ematea; bestetik, langileei be-

ren lanpostuak azken berrikuntzei bagera jartzeko ikasketak eskaintzea. Horrez gainera, etorkizuneko teknologien ezagutza, lanbideei buruzko orientazioa eta langabeak era pertsonalizatuan tratatzea ditu bere funtzioetako batzuk.

Egitasmo hori aurrera eramateko udalak Etxeberrieta auzoko Leizaran ikastetxea egokituko du. Hezkuntza fondoak berriz, material didaktikoa eta irakasleak jarriko ditu.

## DENDARIEK EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK

**Helburua euskara ikastea eta dendan euskarazko errotuloak jartzea da**

Dendariek beren dendaren errotuloa euskaraz jartzeagatik edo euskarazko klaseetara joateagatik udalaren dirulaguntza jasoko dute. Udaleko euskara batzordeak harturiko erabaki horren helburua komertzioetan euskararen erabilera bultzatzea da.

Dirulaguntza horiek jasotzeko betebeharrak orokorra udalarekin zorrik ez izatea da. Errotuloei dagokienez berriz, dendako errotuloak euskara egoki batean idatzita egotea. Horretarako udaleko euskara batzordeak itzulpen, hizkuntza-zuzenketa eta aholkularitza zerbitzuak eskainiko ditu. Horrez gainera, euskarazko klaseetara joango diren dendariak dirulaguntzak jasotzeko, % 80-90-eko asistentzia izan behar dute. Era berean udaleko idatzi eta oharrek euskaraz jasotzeko aukera ere eskainiko zaie dendariak. Merkatariak udalaren kanpaina horren berri gutun bidez izango dute hemendik gutxira.

## URRIKO EKINTZA KULTURALAK

**Don Gervasio Aranbururi omenaldia egingo diote**

Urriaren 19an Marta Sebastianen folk emanaldia izango dugu ikusgai La Salle antzokian, arratsaldeko zortziretan. Urriak 24, 25 eta 26rako berriz, Don Gervasio Aranburu apaiza omentzeko ekitaldiak antolatuko dituzte. Lehenengoa egunean, Don Gervasio Aranbururi buruzko hitzaldia eskainiko dugu Joseba Goñik Urigain Kultur Etxean, arratsaldeko 19.30etan. Hurrengo egunean Donosti Ereski abesbatzaren kontzertua izango dugu San Martin parrokiaren arratsaldeko 20.00tan. Omenaldiaren azken ekitaldia Alberto Agirre abesbatzak lagundutako meza nagusia izango da.



**BORDA**  
*Jatetxea*

ANDOAIN



# GANADU ETA BARAZKI ERAKUSKETA ARRAKASTATSUA

**Gauza asko eta kalitate onekoak izan ziren ikusgai**

**G**oizeko hamaiketarik eguerdiko ordubiak arte 137 behi-buru, 8 ardi sorta, ahuntz sorta bat eta pare bat behor izan ziren ikusgai plaza ondoko zelaian. Ganadua ikusteko feria edota erakusketa izan zen, eta beraz, ez zen ganadu salerosketarik egin. Hala ere, jende ugari hurbildu zen ganadua ikustera, gehienak baserri-tarrak eta beste asko herriz, artisau erakusketa ikustera etorritakoak. Herrikoa zen ikusgai jarri zuten ganadua, eta oso kalitate onekoa, gainera. Egun horretan egin zuen euriak zelaia erabat lokaztu zuen, eta hori izan zen erakusketako eragozpen bakarra.

## ***Bederatzi baserrietako barazkien erakusketa***

Etxeko barazki eta fruta erakusketara ere jende asko etorri zen, eta ikustera ezezik, erostera ere hurbildu zen jendea. Barazki eta fruta onenari saria Lamitegi baserriak irabazi zuen, eta postu politenaren saria herriz. Etxeberritsu baserriak. Lehiaketaren epaimahaia Gipuzkoako Foru Aldundiko kide batek eta Fraisoro nekazaritza eskolako zuzendariak osatu zuten. Antolatzaileek herritarren laguntza eskertu nahi dute, beren garajeak utzi baitzizkieten erakusketa jartzeko eta euriak postuak busti ez zitzen.

*Asteasuko herrian gauza ugari antolatu zituzten irailaren 22an; artisau erakusketa, ganadu eta barazki erakusketa eta dantza txapelketa, hain zuzen. Herriko baserritarrek ganadu eta barazki erakusketa antolatu zuten, eta eguraldiak lagundu ez zuen arren, arrakasta handia izan zuen.*



## **Oharra**

**I**railaren 27an kaleratu genuen Aiurrin agertu zen "Jarraipen batzordea sinadurak biltzen" izenburupeko artikuluan, udaleko Jarraipen batzordea ostegunero biltzen zela esaten genuen. Okerrak zuzendu nahian ordea, batzorde horrek biltzeko egun jakinik ez duela adierazi nahi dugu oraingoan.

## **Herribideak berritzen**

**A**rbide Zaharrera doan bideaz gain, Arrotondo nahiz Iturtza Sarobe baserrietara joateko bideak berritu ditu udalak orain dela gutxi. Hormigoiez estali dituzte bideak, eta galipota baino garestiagoa izan arren, kalitate hobetueko erabili dute hormigoia. Urte amaieran Andrazarate inguruko Haizea eta Ortzeder etxetara doazen errepideak konponduko dituzte. Herribideak berritzeko lanak datorren urtean amaituko dituzte. Elizmendiko zenbait baserrietako bideak konpontzen dituztenean, alegia.

# JOXE ANGEL APEZETXEA PRESOA KALEAN

**Pedro Galarraga zizurkildarrarekin batera atxilotu zuten**

**Joxe Angel Apezetxea Agiri, irailaren 24an utzi zuten aske. Ia lau urtez egon da gartzelan Agiri preso, eta Carabanchel, Alcalá, Valdemoro, Caceres II eta Teruel izan dira denbora horretan igaro dituen gartzelak. Amnistiaren Aldeko batzordeak esan digunez, baldintzapeko askatasuna dela eta, berez, lehenago askatu behar zuten.**

Askatu eta egun berean egin zioten lehenengo ongietorria Agiri hainbat herritarrek. Hala ere, irailaren 29an egin zioten ongietorria izan zen ekitaldirik nagusia. Hirurehun lagun bildu ziren ongietorrian eta ekitaldiaren hasieran, Oinkari dantza taldeak agurra dantzatu zien bai Agiri bai herriko beste preso guztiei. Ondoren, Alex Uzkiano eta Gervasio Agirre herriko presoek bidalitako telegramak irakurri zituzten. Amnistiaren Aldeko batzordeko kide batek hartu zuen gero hitza, eta hala presoan egoera nola hauek Euskal Herrira ekartzeko beharra azaldu zuen. Era berean, EAJ-PNVren jarriera aldatetaz hitz egin zuen, "duela urte batzuk dispersioa diseinatu zutenek horrekin bukatu nahi dutela diote. Hori benetan horrela dela erakutsi beharko dute" esan zuen. Herriko hertsolariaren bertsoak eta hainbat erakunderen opariak jaso zituen ondoren Apezetxeak, eta ekitaldia bukatzeko, berak hitz egin zuen.

## **Eskerrak lagun eta senitartekoei**

Agiri Amnistiaren Aldeko batzordeari, Senideak erakundeari eta gartzelara bisitan joan diren lagunei eman zizkien eskerrak. Ongietorria bere senideek merezi dutela esan zuen,



**Agiri opariak jasotzen**

eta gartzelako lagunetaz erabat harro sentitzen dela aipatu zuen bukatzeko.

Ekitaldia amaitzeko manifestazioa egin zen presoak Euskal Herrira lempen, eta ondoren, bazkaria egin zuten herriko plazan.

## **Alex Uzkianori omenaldia**

Duela hamar urteko urriaren 3an sartu zuten gartzelan Alex Uzkiano preso. Hori dela eta, Alex omentze-

ko zenbait ekitaldi antolatu ditu Amnistiaren Aldeko batzordeak. Bere lanen erakusketa bat egin zuten aurreko astean, eta datorren igandean berri, omenaldi bat egingo diote Berdura plazan. Urriaren 16an Kultur Etxean egingo den hitzaldia izango da azken ekintza: Presoak Euskal Herrira izango du eztabaidak hizpide, eta arratsaldeko zortziretan egingo dute.

## **ALDUDE HERRIRA TXANGOIA**

**Urriaren 12an egingo duten jaialdira izango da bidaiaria**

Bihar jaialdi ikusgarri bat egingo dute Billabonarekin herrikidetuta dagoen Aldude herrian. Nafarroa Beheko herri txiki bat Aldude, eta oraingoan, billabonatarrei egokitzen zaie mugaz bestaldera joatea. Izan ere, Irintzi elkartearen jaialdira etorri ziren Iparraldeko lagunak azkeneko aldiz. Jaialdira joateko, autobusa jarriko du Billabonako Udalak eta Subijana-irteko irteko da bihar goizeko 10.30etan. Berez, osteguna baino lehenago eman behar zuten interesatuek izena. Hamaika terdietarako

helduko dira bidaiariak Aldudera, eta bertako nahiz Banka eta Urepeleko ferriak ikusten arituko dira bazkaldu bitartean. Norberak eraman behar duen bazkaria jan ondoren, Behar Zana elkarteko eta Iparraldeko pilotari neskak elkarren artean leihan arituko dira trinketean. Arratsaldeko zazpirak aldera Urepelen eskainiko duten kontzertuak emango dio bukaera jaialdiari: Billabonako Oskarbi-txiki eta Oskarbi abesbatzak, Iparraldeko Iguzki Lore eta Aire Ahizpekin batera abestuko dute.



# AMAIA ZUBIRIA: "EMAKUME EUSKALDUNEN BENETAKO AHOTSA EZAGUTZEKE DAGO"

**Kultur ihardunaldien barruan Amaia Zubiriaren kantaldia izan dugu beste ekintza batzuren artean. Urriaren hiruan etorri zen Billabonara, eta Gurea zinema aretoan bildu ziren herritarrek bere kanta entzuteko nahiz kantatzeko aukera izan zuten. Aiurrik ere berarekin egoteko aukera izan du, eta Zubietako abeslari ezagun honen hogeituzetako urte luzeko ibilbidea eta asmoak zeintzuk diren ezagutu ditugu.**

**Aiurri: Zein kanta eta musika abestu dituzu kontzertuan?**

**Amaia Zubiria:** Nire azken diskako kanta, "Amo-naren benganza" diskakoak, alegia, nola lehenagoko kanta ezagunak abestu ditut. Zenbait kanta zaharrei doinu berria jarri diet, eta zenbait abestiei berriak diren hitzak jarri dizkiet. Bilintx, Otano eta beste bertso-lari ezagun batzuen bertsoak ere kantatu ditut. Nire ama-rengandik ikasitako abestiak dira asko.

**Ai: Emanaldi asko eskaintzen ari al zara azkenaldi bonetan? Nolako barrera dute?**

**A.Z.:** Oso barrera ona dute gure emanaldiek, eta azaroa adibidez, emanaldiz josita daukagu. Gauza berriak egin nahi ditugu, baina momentu bonetan, aspaldiko kanta eta musika ezagutarazten ari den unean, orain-goan jarraituko dugu. Izan ere, gauza zabarrak deskribitzeke daude oraindik, eta beraz, jendeari horiek ezagutzeko aukera emango diogu. Etorriko da gauza berriak egiteko garaia.

**Ai: Emakume abeslari asko al zaudete Euskal Herrian?**

**A.Z.:** Emakume abeslariak egon badaude, baina Euskal Herrian gizonezkoen abotsak entzuteko obitura daukagu. Hemengo emakumeen benetako abotsa ezagutzeko daukagu, kanpoko emakume abeslarien eredia jarraitzen dugu; hemengo emakumeren abotsaren indarra azaltzeko ausardia falta zaigu, nonbait.



Arg: Amagoia Mirua

**Ai: Hogeituzetako urte abesten igaro ondoren ikastekorik ba al duzu? Noiz arte jarraituko duzu?**

**A.Z.:** Ikastea ez da inoiz bukatzen. Nik bala ere, sentitzen dudana abesten dut, horrek arrakasta izango duen edo ez aurrikusi gabe. Abal dudana bitartean jarraituko dut abesten.

## HIRUGARREN ADINAREN XII. ASTEA

**I**railaren azken astean ekintza ugari egin zuten Biltoki elkarteko jubilatuek. Mus eta tute txapelketa, Santiago egoitzara bisita, makailo kaxuelen lehiaketa, eta toka nahiz tiro txapelketa izan ziren ekintza horietako batzuk. Aurtengo beritasuna, mus eta tute txapelketako saioak elkarte ezberdinetan jokatu beharrean Biltoki elkartean jokatu dituztela izan da. Ondorioz, elkartean nahikoa ekintza eta oso giro ona izan dute aste guztian zehar. Ramon Garate sendagilearen hizaldia entzuteran jende asko hurbildu zen, baita jubilatuen eskulanean erakusketa ikusteran ere. Igandean ordea, meza eta bazkaria izan zuten jubilatuek eta pentsiodunek, eta dantza eta kantuz eman zioten aurtengo hirugarren adinekoen asteari amaiera.



Umore ona etzer falta izan bazkarian



# GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA

**Hilaren 25era arte jarriko  
dute txertoa osasun egoitzan**

**Urriaren 14tik 25era arte N-tik Z-tara bitarteko abizena duten 65 urtetik gorako herri-tarrek txertoa jartzeko aukera izango dute Billabonako osasun egoitzan. Era berean, gaixotasun kronikorik duen edonork gripearren kontrako txertoa jar dezala gomendatzen dute.**

Urtero, gripearren aurkako txertoa jartzeko kanpaina egiten dute osasun egoitza guztietan. Txertoa gaixotasun kronikoren bat duten herritarrei eta 65 urtetik gorako zaharrei jartzea aholkatzen diete bakarrik. Neurri horiekin heldu nahiz gaixo horiek gripearren eraginez arazo gehiago ez edukitzea lortu nahi da. Gainera, gaixoeekin nahiz zaharrek lanean ari diren langileak ere txertatzea gomendatzen dute gripea ez transmititzeko. Txertoa jarri nahi duten 65 urtetik gorakoek nahikoa dute beren osasun txartela edo nortasun agiria aurkeztea. Gaixotasun kronikoa dutenek aldiz, ohiko sendagilearengana jo beharko dute txertoa jartzeko agiriaren bila.

### Urtero txertoa hartu beharra

Urtero txertoa hartu behar izaten da gripearren aurka, gripearren birusa oso aldakorra baita. Billabonako osasun egoitzekoek esan digutenez 1000 lagun inguruk hartzen dute txertoa urtero, eta noski, udazkena hasi bezain laister hartu behar izaten da. Orain artean 65 urtetik gorako askok egin dutela gaineratu dute.

# HERRIKO URA BASERRIETARA

**Baserritarrekin elkarlanean  
gingo dituzte lanak**

Zizurkilgo hamar baserrietara herriko ura ailegatzeko lanak hasi berri dituzte. Horre-zaz gain, etxe horrietako ur zikina herriko araztegiara heltzeko lanak ere burutuko dituzte. Azkenik, Azkarate inguruan dagoen ur biltegia handituko dute.

Hamar-hamabi milioi pezetako kostua izango dute egiten hasi diren lan horiek, baina diru guztia ez du udalak jarriko; kostuaren zenbateko bat baserritarrek ordaindu beharko dute. Beraz, baserritarren eta udalaren arteko elkarlanaz burutuko dira lanak. Hemendik urte pare batera bukatuko dituzte lan guztiak.



*Hilabete askotako lanak izango dira*



CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

**EGUZKITAKO  
BETAURREKOTAN  
AUKERA ZABALA**

Kale nagusia 9 - 20140 ANDOAIN  
☎ 59 18 17



AHOLKULARITZA  
ARTEZKARITZA

**IRAOLA**

ENPRESEN AHOLKULARITZA:  
FISKALA, DIRUKONTUENA,  
JURIDIKOA, LABORALA,  
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37  
Tlf. 69 27 63  
Fax 69 27 74  
20150 BILLABONA

**MIRARI**  
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2  
☎ 590162

**ANDOAIN**

**AURRERA  
TABERNA**

Girorik ederrena gazterientzat!!  
ZIZURKIL



**Billabona**

# EUROPEAN SCHOOL HIZKUNTZ AKADEMIA

## Klasean eta atzerrian ikasteko aukera

**Lanpostu bat lortzeko, ordenagailuak erabiltzeko edota munduan zehar ibiltzeko oso beharrezkoa bihurtu da ingelesa. Era berean, alemaniera ikasten ari direnak ere ugaritu egin dira, eta frantsesa ikasten dutenak ere asko dira oraindik. Billabonako European School hizkuntz akademiak frantsesa eta ingelesa ikasteko aukera luzatzen du; herrian bertan edota atzerrian.**

Jose Manuel del Rio frantziarra eta William Clements irlandarra dira European School akademiako arduradunak, eta bi irakasle horietaz gain, ingelesa irakasten duen irakasle batek eta idazkari batek osatzen dute akademiako langilegoa. Adin ezberdine-


ko 150 ikasle dituzte, gehienak ingeleseko klascetan, eta goizean, arratsaldean nahiz eguerdian ematen dituzte eskolak. Normalean ordu t'erdiko klaseak izaten dira, eta ikasleek astean hiru orduz ikasi ohi dutela esan digu William Clements irakasleak. Gainera, titulu

bat lortu nahi duenarentzako eta ingelesa hitz egiten ikasi nahi duenarentzako klaseak ez dira berdinak: *"lehenengoak liburu eta ariketen bitartez gramatika landuko du gehien, bigarrenak ordea, bideoak, zintak eta antzeko material gehiagoren laguntzaz ikasiko du"*. Gainera, negozioetarako ingeles espezializatuko klaseak edota eskolako ingelesa gainditzeko klaseak ere eskaintzen dituzte. Aipatu behar da hainbat enpresetara ere joaten direla klaseak ematera, hala ingelesekoak nola frantsesekoak: *"atzerriko enpresarekin barrena eduki zeko edota hainbat makina eta ordenagailuen funtzionamendua ulertzeko behar baitute"*.

### Atzerriara lanera eta ikastera

Hizkuntza bat ikasteko ordea, ez dago hizkuntza hori hitz egiten den herrialdera joatea bezalakorik. Beraz, ingelesa atzerrian ikasi nahi dutenentzako bidaiak antolatzen ditu European School-ek. Irlandarra eta Ingalaterrara antolatzen dituzte bidaiak, eta ikastera bakarrik edota ikasi eta lan egitera joateko aukera luzatzen dute: *"Ingelesa bakarrik ikastera edota beren ikasketak atzerrian bukatzera joaten da jendea. Bestalde, lana egiteko aukera ere badute bidaiak merkeagoa egin nahi dutenek"*.


Bestalde, eskoletan erakutsi ohi duten atzerriko hizkuntza beste era batetara erakutsi beharko litzatekeela uste du William-ek. *"ikasle gutxigorekin, behinik behin"*. Akademiaren zazpi ikasleko klaseak izaten dira jendetsuenak, eta ikasleak ugaritzen ari direnez, lokal berri bat hartzea pentsatu dute. Izan ere, geroz eta gehiago dira atzerriko hizkuntzak ikasten ari direnak.



Ingelesa eta frantsesa irakasten dute

Oremendi Kirolak

AUKERA ZABALA  
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN



Kaleberria, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

# AZOKA, ATERIK GABEKO DENDA

**Geroz eta jende gutxiagok egiten ditu erosketak azokan**

*Astearte goizetan inoiz baino aztoratuago egon ohi da Andoain, baita Billabona ere.*

*Asteroko legez, azoka egiten da goizean eta jende asko ibiltzen da hau ikusi, beste hori erosi, eta finean, azokaren aitzakiz kalera irten eta pasiatzen. Andoaindarrek gainera, astean bitan dute hori egiteko*

*aukera, larunbatetan ere azoka egiten baita. Arropa, fruta, barazki, arraultza eta hainbat gauza gehiago saltzeko postuak egoten dira merkatuan, baina geroz eta gutxiago dira bertako salgaiak erosten dituztenak. Izan ere, azokara joateko ohitura galduz doa.*

**I**raileko astearte bateko goizeko hamaikak dira. Billabonako merkatuko saltzaileak nahikoa asperturik daude jada. Egun kaskarra izan dela esan digute. Izan ere, postuak salgai bezetara dituzte oraindik. Goizeko zortzietatik eguerdiko ordubateara egiten da azoka, eta jende gehienak goizean goiz egiten ditu erosketak.

Mahatsa eta mandarinak jarri dituzte salgai frutasaltzaileek; jertseak eta alkandorak berriz, arropa postuetan; baserritarrek bestalde, ez dute hemendik aurrera tomate gehiago ekarriko. Bukatu dira udako produktuak.

Azokan postua jartzeko baime-na eskatu behar zaio udalari, eta bertako saltzaileak iharduera ekonomikoetarako baime-na eduki behar du, langile autonomoa izateaz gain. "Udalarekin batera erabakitzen dugu zenbat postu jarri behar diren, eta oraingoz, nabikoak gaitde" esan digu denda edukita ere astero Billabonan postua jartzen duen frutasaltzaile batek. Azokako produktuen prezioa merkeagoa izan ohi dela esan digu, baina kalitatea dendakoarena bezalakoa dela gaineratu du. Donostiara joaten da fruta erostera, eta Almeria, Valentzia eta inguruko fruta da erosten duena. Astero fruta erosten dioten bezero finkoek ez omen dute beti gastu bera egiten: "bilaren amaieta eta udaran saltzen dugu gutxien. Hemendik aurrera bobeto salduko dugu". Gazteek azokara etortzeko ohiturarik ez dutelako kexu da, eta azokan erostea dendan egitea baino lasaiago eta askeagoa dela uste du: "saltzaileari gauzak galdetu,



*Ezin da postu berri gehiagorik jarri*

*jeneroa ikusi eta bala ere, erosi gabe joateko aukera dago merkatuan; ez dago inolako konpromezurik".*

**"Jendeak gauzak ikusteko eta galdetzeko aukera du merkatuan; ezer erosteko konpromezurik gabe"**

Arropa saltzaileak ere ez du oso egun ona izan. "Billabonako merkatua nabikoa eskasa izaten da" adierazi digu. Herri handiagotan gehiago saltzen dute. Langabezia gelditutako jende askok saltzeari

ekin diola esan digu. "saltzea negozio borobila delakoan!". Galtzak, jertseak eta jaka ugari ditu postuan, erosi aurretik probatu daitezkeenak, gainera. "Denda batean aurkitu daitezkeen arropak saltzen ditugu, hori bai, merkeago".

**Andoaingo saltzaileak kexu**

Andoaingo azokan hamabiak jo dizkigu. Ordu terdira hasiko dira postuak biltzen, larunbatean berriro jartzeko. Larunbateko merkatua gainera, hobea izaten da. Billabonan baino jende gehiago dabil alde batetik bestera, baina gutxi ari dira erosketak egiten. Goxokiak, ardoa eta bakailua saltzen duten postuak daude, besteak beste. Billabonan ikusi ditugun postuez gain, Bakailua saltzen ari direnek Pasaiatik ekartzen dute arraina, eta Gipuzkoa osoan ibiltzen dira berai saltzen. "Gernikako ferian ere saltzen



*dugu*". Hiru hilabetean behin ordaintzen diete postuetako jabeek udalari, eta irailan adibidez, abendura bitarteko hilabeteak ordaindu behar izan dituzte. Saltzaile bat ez dago batere ados aldez aurretik ordaintzearekin, eta urtean ehun mila pezeta baino gehiago kostatzen zaie postua jartzea. "Ea Andoaingo Udalak noiz egiten dituen merkatu itxia egiteko lanak eta konitnak!" azaldu digu saltzaileak haserre.

## Baserritarren postuak gutxituz

Lehen baino baserritar gutxiago etortzen dira egun merkatura saltzera, "zabarrak erretiratu baitira eta gazteak berriz, ez dira animatzen" esan digu Andoaingo baserritar batek. Billabonan ez dute ezer ordaindu behar baserritarrek postua jartzeagatik, "gainera, mahaiaik udalak jartzen dizkigut" esan digute bertakoei; Andoaingen ordea, urtero berrogeita hamar mila pezeta inguru ordaindu behar diote udalari. Azelgak, baratzuriak, sagarrak, eta gehienbat, arraultzak dira salgai dituzten produktuak. Dendako produktuak baino garestiagoak dira, "baina atzo bertan baratzatik ateratako barazkiak dira, fresko-freskoak". Bezero finkoak dituzte baserritarrek, pro-



**Tolosakoa omen da baserritarren azokarik hobereena**

duktuak ondo ezagutzen dituztenak, baina bezero berriak egitea kostatzen egiten zaie: "Gazte gutxi etortzen dira erostera, dendetara joateko obitura dute gebienek". Andoaingen aurkitu dugun baserritarrek nekazaritzatik ateratzen du bizimodua, merkaturak eta tabernetan barazkiak saltzeaz gain, behiaren esnea saltzen baitute. Billabonakoek ordea, seme eta alabak dituzte ba-

serritik kanpo lanean, "ferian irabazitakoa laguntzatxo bat besterik ez da". Familia, lana eta antzeko gaietaz ari dira solasean baserritarrek, eta merkatura lagunekin egoteko eta hitz egiteko etortzen direla aitortu digute: "asko gustatzen zaigu bemengo saltza".

## Ikusmirara eta erostera

Azokara joaten diren herritarrek erostea baino, ikusmirara etortzen direla esan digute saltzaileek. Baina Billabonako baserritarrei tomateak eta arraultzak erosten ari den emakume batek esan digunez, beti baserritarrei erosten dizkie produktu horiek, "dendakoak baino kalitate hobekoak baitira". Andoaingo merkaturak ikusmiran ari den gizonezko batek ordea, pasiatzera eta ferian zer ote dagoen ikus-

tera etorri ohi dela aitortu digu, "gutxitan etortzen naiz zerbañt erostera". Beste emakume andoaingar bat gehiagotan etorriko litzatekeen arren, merkaturatik urruti bizi dela eta erosketek pisu handia izaten dutenez, ezin duela sarritan etorri azaldu digu. Hala ere, badira astero etortzen diren herritarrek, astean bitan gainera andoaingarrek. Barazkiak eta arropak erosten dituzte gehienbat Andoaingen topatu ditugun bi etxeandreak, "kalitate onekoak eta dendakoak baino merkeagoak baitira".

## "Azokako produktuak merkeagoak dira"

Garai batean egiten zuten merkaturak hobea zela esan digute bi emakumeek, "nabi zutenek jartzen baitzuten postua, baimenik eskatu gabe. Ondorioz, prezioak ere asko jaisten ziren".

Ordubata l'erdietarako jasota daude azokako postu guztiak. Itxi ditu gaurkoz bere "ateak" aterik gabeko saltegi berezi honek.



**Prezioak aldatu egiten dira astetik atera**

Larraul

# JOSU TELLABIDE: "GURE ONDAREA EZ BADUGU ZAINTZEN EUSKALDUNAK DESAGERTU EGINGO GARA".

*Azken urteetan Josu Tellabide Aranzadi zientzi elkarteko kide eta etnologoak, Gipuzkoako herri askotako toponimien bilketa egin du, besteak beste. Horrezaz gain, Euskal Herriko atlas etnolinguistikoa ere egin du. Azken batean bere*

*lana ondare historiko-etnografiko eta arkitektonikoak biltzea da. Euskaldunon ondarea gordetzea guztion eginbeharra dela azpimarratu ondoren, jendeak ondarea zer den ikasi eta errespetatzen jakitea garrantzitsua dela azaldu digu.*

**Aiurri: Zein da etnologo baten lana?**

**Josu Tellabide:** Pertsonen, herrien eta obituren azterketa egitean datza lanak. Gizartearen tradizioaren azterketa egitea, alegia. Gure kasuan adibidez, Aranzadi elkarteko kide batzuk duela hamabi urte Gipuzkoako foru aldundiak eskatuta, toponimia bilketa egiten hasi ginen. Gipuzkoa guztian zehar zeuden izenik gabeko baserri eta bideak normalizatzeko lanetan hasi ginen.

**Ai: Zein lan argitaratu dituzu orain arte?**

**J.T.:** Gipuzkoako herrialde erdiaren toponimiak bildu ditut. DEIKER, Deustuko Unibertsitateko ikerketa sailekoak eskatuta bildu ditut toponimia horiek. Horrezaz gain, Lasarte, Hernani, Urnieta eta Donostiako toponimiak ere bildu ditut. Azken hori urte askotako lana izan da, eta azkenean, Doctor Caminok argitaratu zuen lana. Diputazioak eskatuta egitako toponimia bilketa hori nire esperientzia pertsonalerako oso aberasgarria izan da. Horrezaz gain, Aranzadi elkarteko kideok Euskal Herriko atlas etnolinguistikoa ere egin dugu. Era berean, Gipuzkoako ondare historiko-artistikoaren jasotzaile naiz: balore historiko, etnografiko eta arkitektonikoak babestearen ardura daukat, bain zuzen. Gainera



Josu Tellabide etnologoa

herri batzuetako mapa toponimikoak ere egin ditut.

**"Pertsonen, herrien eta obituren tradizioa herriko euskararen biltzea da helburua"**

**Ai: Zein helbururekin egiten da toponimia bilketa?**

**J.T.:** Gure maisuak izan diren Manuel Lekuona eta Jose Migel Barandiaranek egin zuten antzera, gure herrien eta obituren tradizioa bertako euskararen jasotzea

da helburua. Arrazoi borregatik sortu zen duela 50 urte Aranzadi zientzia elkarte. Gure tradizioa ez galtzea zaila da, boluntarismo bitsean landu baitira orain arteko lanak. Kulturalki aspaldi egin behar zen lana da hori, baina inoiz ez da berandu.

**"Euskal ondarea gure kulturak, hizkuntzak eta herriak osatzen dute"**

**Ai: Zer da euskal ondarea?**

**J.T.:** Gure kultura eta bizkuntza. Gutsiatsi egiten dugun arren, ez da okerragoa gure bizkuntza, ezberdina baizik. Ezin dugu galdu gure bizkuntzaren ondarea, gero eta gehiago erabiltzen den "Kastellanoa" dela eta. Baserritarren artean ere eman da kasu hori.

Ondare arkitektonikoa ere bada, gure historiak dituen eraikuntzak eta paisaiak. Mendi, baserri, etxe eta elizek, gure herria osatzen dute. Hori guztia ez badugu zaintzen eta garatzen euskaldun ondarea galdu egingo dugu. Elementu horiek guztiek lotzen dute herri bat eta bere izpiritua. Hori da nik ikusten dudana arazorik larriena,

bau da, ez dagoela lurraldearen ordenazio bat. Autobideak adibidez edonon egiten dira eta ez da ondarea kontutan hartzen. Pertsona askok ez dakite zer den ondarea eta horrek duen balorea.

**Ai: Jende eta toki asko ezagutu dituzu. Izango duzu anekdotaren bat, ezta?**

**J.T.:** Bai. Esate baterako ni Aranzadi zientzi elkartekoa naiz.



Larraulen ari da egun lanean

eta batek baino gehiagok uste du Aranzadi sozietate gastronomikoa dela. Euskal Herrian horrelako sozietate asko dago eta batzurenzat ez dago bestelako sozietaterik. Herri txikietan horrelako sozietateak aurrera eramanez ezin jendea arduratzen duen bitartean, herriko zenbait eraikuntzen egoera tamalgarriaz ez da jabetzen hainbat jende.

**Ai: Orain Larraulen zabilta lanean. Zer duzu eskuarte?**

**J.T.:** Larraulgo herriaren berpizte bat egiten ari naiz. Larraulgo garapena egitea da nere lana; etxeen apaintaketak egiten hasiko gara besteak beste. Horrez gain, bideak antolatatu, etxe batzuk turismorako egokitu, elizan obrak egin, denda jarri, museoak egin eta antzeko egitasmoak ditugu eskuarte. Animazio kulturala bultzatu eta garatu nahi da eta ez festetarako bakarrik. Herriak irauteko beste gauza batzuk behar ditu ere.

**Ai: Baduzu Larrauletaz zerbait azpimarratzeko edota esatekorik?**

**J.T.:** Bai. Denok jakingo duzuenez

Larraulgo alkate izan zen Antton Amonarritz zoritxarrez auzolanean hil zen; kanposantua garbitzen baino zuzen. Anttonek herria asko maite zuen eta bere omenez bultzatu nahi dugu Larraulen berpiztea. Berak egindako lanetik jarraitu behar dugu, berak amesten zuen herria guk atera nahi dugu aurrera. Ezin dugu lan borretan butsik egin. ■



## XIKORI

### BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA  
KONSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

## FRANCISCO MENDIKUTE HARATEGIA



Kalxetiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN



# Kultura

Larramendi Bazkuneko Asteasuko biltzarrak herriko kultur ekintzen eskasiak kezkatuta zerbait berezia egitea erabaki zuen. Horrela, irail bukaeran Asteasuko I. artisau erakusketa antolatu zuen. Eguraldia zela eta ez zela artisau erakusketa azkenean udaletxe, frontoi eta zenbait garajeren aterpeetan egitea erabaki zuten.

Asteasuko Larramendi bazkuneko kidea den Mikel Maizek azaldu digun bezala, hasieran beldur ziren: "Gutxi batzuek bakarrik sinisten zuten egitasmo horretan. Konfidantza gutxi zegoen jendearen artean, baina erakusketak arrakasta handia lortu duenez jendea animatu egin da. Orain, herriko artisau gehiagoren berri izan dugu. Herriko baserritar eta artisauak hurrengo urteari begira daude".

Asteasuko Larramendi bazkunak artisau erakusketa antolatzeko lan asko egin behar izan du. Otsailean hasi ziren lanean eta azken egunerarte ez dute jakin jendeak zer harrera egingo zion artisau erakusketari. Artisau erakusketa guztiz positiboa izan dela azaldu digute, baina hurrengo urterako ez dela ezer erabaki azpimarratu dute. "Aurten artisau erakusketak arrakasta izan badu, berritasuna izan delako da. Urtero egingo bultz ez litzateke ezer berri eskainiko eta jendea aspertu egingo litzateke. Beraz, erabakitzeke dagoen arren, hobe da bi edo lau urtetik behin egitea".

Asteasuko Larramendi bazkunak artisau erakusketan parte hartu duten artisau guztiei eskerrak eman nahi dizkie erakusketa posible egin dutelako. Era berean eskerrak eman nahi dizkio egitasmo horren babeslea izan den Asteasuko Udalarari, eta azkenik, baina ez garrantzi gutxiago dutelako, Asteasura joan ziren guztiei.

## PARTEHARTZAILEAK

### ERREMINTARIAK:

*Iñaxio eta Juantxo GARMENDIA*

### PARRILAK:

*Luis M<sup>o</sup> TXAPARTEGI*

### ZURGINTZA:

*Feli eta Josetxo MAYOZ*

### UZTARGILEA:

*J. Ignacio IRAOLA*

### LANABESAK:

*Florentino MAYOZ*

### APRETAK:

*Kontxu UZKUDUN*

### ZAHARBERRITZEA:

*Begoña DEL VALLE*

### BASTOIAK:

*Joxe Miel SARASOLA*

### OHIALAK:

*Mintxa AGIRRE*

*Juli ARRASTOA*

*Elvira COSTA*

*Iñaxi MUÑOA*

### ARTZANTZA TRESNAK:

*Cesar GOMEZ*

### SOKAK:

*Santos URKOLA*

### MAKRAME:

*Jesus M<sup>o</sup> OTEGI*

### ESKUSOINUAK:

*TAPIA anaiak*

### ERLAZANTZA:

*Angel ALIRI*

### GOZOGINTZA:

*OGI-ZURI*

### SAGARDOA:

*SARASOLA*

### TALOAK:

*Maria OTEGI*

*Maria SARASOLA*

*Arantxa AMONARRIZ*


*Mila IRAZU*






*Mila IRAZUSTA*

### GAZTA:

*Eugenio ARRETXE*

*Patxi IZAGIRRE*





# ANDOAINGO TXISTULARIEN BANDA. 1979.



**Zutik ezkerretik eskuinera:** *Gotzon Huizi, Xabier Esnal, Jose Luis Etxeberria, Joxe Goikoetxea, Joxe Mari Huizi, eta Felix Martinez de Lezea.*

**Makurtuta ezkerretik eskuinera:** *Xabier Jauregi, Jon Lizarribar, Xabier Ansa, Xabin Mujika eta Inaki Egibar.*

Argazkia 1979. urteko Eguberritan atera zuten, abenduaren hogeita bostean, hain zuzen. Izan ere, Andoaingo txistularien banda kalera txistua jotzera egun horretan irten

zen lehenengo aldiz. Bertakoen izen-abizenak eta informazioa eman digun **Jose Luis Etxeberriak** erakusten zien txistua jotzen bandako kideei. Jose Luisen esanetan, zenbait jaialdi eta ospakizunetan jotzen zuten txistua, eta kontzertuak ere eskaini zituzten, elizan, gehienbat. Argazkian ageri diren batzuk ez ditugu gure artean, eta beste batzuek ere ez dute jada txisturik jotzen. Hala ere, hamalau laguneko txistularien banda dago egun Andoainen. Jesus Hernandez Arsuaga da oraingo txistu irakasle berria.

**BENITO**  
HARATEGIA  
URDAITEGIA

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49  
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA



TXERRIKIEN  
BANATZAILE  
ETA  
EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA

Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923  
ANDOAIN

**07SAB9**

Etxebizitzen salerosketa

Kaleberria, 58 ☎ 69 08 94  
BILLABONA



## AINHOA ELOLA. Leizaur irratiko haur progamaren aurkezlea.



**-Nola hasi zinen irratian lanean?**

-Irratia martxan jartzera zibonanean umeen programa egiteko proposamena egin zidaten. Gauzak horrela, Andoainen egin zen Kilometroaren jaialdiko egun berean hasi ginen emititzen beste bi lagun eta birurok. Esperientzia polita izan zitekeela eta hasi nintzen lanean irratian.

**-Ordutik hona zein programa mota egin dituzu eta zergatik?**

-Beti baurren programa egin izan dut. "Trentxikia" k etapa ezberdinak izan ditu, irratia- ren antzera, baina beti baurrak izan dira irratsaioaren protagonistak. Umeak gustoko ditut eta programa mota hori egilea zaila ez denez, ez dut programaz aldatzea pentsatu ere egin.

**- Zer nolako lana egin behar da horrelako programa batean?**

-Ez da lan handia. Garrantzitsuena umeekin harremanetan egotea da. Umeen munduan ez bazabiltza basieran kostu egiten da beraiekin kontaktuan jartzea, baina gero harreman hori mantentzea ez da zaila izaten. Beraz, beraiei interesatzen zaizkien gauzak dira gure progamaren ardatza: Lehiaketak, abestiak, txisteak, esakerak, ipuiak, opariak ...

**- Zein atalez osatzen da "Trentxikia"?**

- "Trentxikiak" Andoainen hasi eta Leitzaan bukatzen du bere ibilbidea. Bidean zenbait geraldaldi egiten ditu, eta bertan gure entzuleek parte hartzeko aukera izaten dute. Azken denboraldian egin dugun berritasuna, eskola ezberdinetako baurrek eginitako antzerki, ipuin edota kontakizunak emititzea izan da. Oso harrera ona izan du ekimenak, eta orain, epaimahai bat ari da ume guztien lanak aztertzen.

**- Hizkuntza ezberdina erabili behar al da baurren progama batean?**

-Umeekin ibiliz gero ez da zaila izaten beraiekin harremanetan jartzea. Hala ere, ezberdina da informatiboetako hizkuntza eta umeen programa batean erabiltzen dena: informatagoa eta alaiagoa da.

**- Zein harrera izaten du programak?**

-Harrera oso ona izan du. Entzuleek telefonoz nabiz postaz erantzuten digute, eta egia esan, entzuleen parte hartzea handia da eta hori eskertzekoa da. Hemendik aurrera ere horrelakoa izango delakoan gaude.

## PERTSONAIA EZKUTUA



Aiurriren irakurleek asmatu beharreko pertsonaia berria duzue zirriborroaren atzean ezkutatuta. Beti bezala gure pertsonaia ezaguna da, eta beraz, ez zaizue zaila egingo nor den asmatzea.



Saria bikaina da oraingo honetan ere: **Andoingo Video Box bideo-klub-ak "Liberad a Willy 2 y su amuleto" pelikula**

eman digu oparizat. Irabazleak pelikula hori bere etxean, lagunekin ikusteko aukera izango du.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenok bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15,1 eskubia, 20140 Andoain.** Idatz ezazue zuen telefonoa zuekin harremanetan jartzeko.

## VIDEO BOX

VIDEO - TV - HIFI

*Azken nobedadeen salmeta eta alokairu denda*

PANASONIC  
TECHNICS  
HITACHI

JVC  
PHILIPS  
GRUNDIG

Nafarroa plaza, 4 - ☎ 59 27 05  
ANDOAIN

## MUSIKA

## BILLABONA

**Urriak 25:** MIKEL MARKEZEN kantaldia. Gurea zinema aretoan, gaueko 22.30etan. Sarrera: 500 pta.

**Urriak 24:** Poesia emanaldia. Gurea zinema aretoan, arratsaldeko 20.30etan. Sarrera doain.

## ERAKUSKETAK

## BILLABONA

**Urriak 14-20:** Liburuak inprentarako prestatzeko pausuak; horretarako behar diren euskarriak eta liburu argitaratzeko prozesua aztergai duen erakusketa. Gurea zinema aretoko erakusgelan.

## IBILALDIK

## ANDOAIN

**Urriak 12-13:** EUSKALDUNA mendigoizale taldeak antolatuta Cañón de Río Lobosera; Urbion gailurretara irteera.

**Urriak 20:** Bidasoa arroan zehar 7. ibilbidea: Basakabiko Iruñari, Sorgin-zelaiko Loizate eta Eskaseko Izura irteera.

HAURRENTZAKO IBILALDIK  
ANDOAIN

**Urriak 13:** EUSKALDUNA mendigoizale taldeak antolatuta egun oso-rako Larrunera irteera.

## BILLABONA

**Urriak 20:** AIZKARDI mendi taldeak antolatuta Mendaurrera irteera.

## MERKATU TXIKIA

## ADUNA

Gazte-logela bateko altzariak salgai.  
Telf: 690823

## IKASTAROAK

## ASTEASU

**Urri-ekaina:** Ingelesko klaseak Asteasuko Kultur Etxean astearte eta ostegun arratsaldetan. 3 urtetik 14 urtera arteko hosi talde. Informazio gehiago 691907 telefono zenbakira deituta

**Urri-ekaina:** Eskulanetako klaseak Lizardi Etxean ostegun arratsaldetan.

## LARRAUL

**Urriaren 2tik ekainera:** Gimnasia astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 19:15etan. Hileko 1000 pta. Izenematea Larraulgo Kultur Aretan gimnasiako klase egunetan.

## ADUNA

Txistu dantza eta musika ikastaroak haurrentzat. Gazteentzat eskulanak.

## ZINEMA

BILLABONAKO  
GUREA ZINEMA  
URRIKO PELIKULAK

- *Eraser*
- *Fargo*
- *Twister*
- *Independence day*

## BESTE

## BILLABONA

## LIBURUAREN ASTEA

**Urriak 15:** "Zergatik irakurri?" hitzaldia. Gurea zinema aretoko erakusgelan, arratsaldeko 20.30etan.

**Urriak 17:** "Idazlea liburu aurean" izenburupeko hitzaldia. Gure zinema aretoko erakusgelan, arratsaldeko 20.30etan.

## BEJONDEIZUELA, KITTO!-tarrak

Miren, Alaitz, Koldo... eta gainerako KITTO!-ko milizia anonimoari, bejondeizuela! Tira, holaxecko aldarrikapen publikoa egitea eskatzen zidan barruak. Arrazoia: II. Aste Kulturaren bitartez gazte kolektibo horrek orri erdugarri bat idatzi berri digute Andoaingo basamortu kulturalean.

Bizpahiru emanaldietara joan naizenean ia artisten artea ikus-entzutea bezain interesgarria egin zait muktisu horien begietan irakurtzea. Zer irakurri dudana? Aspaldian Andoainen nekez igarri daitekeena, ilusioa eta kemena. Altruismoz zamaturik, beren aportazio kulturala eskaini digute herritaroi, desinteresatuki, baina ez nolana. Gaztedia Saileko arduradun publikoet ere otuko ez zitzaizen egitaraua gorpuztu dute, konpletu eta konplexu, hausnarlea eta gozagarria; hori bai, zirenak eta ez zirenak arriskatu, jakinean baitziren ez zeukatela bizkarra babestuko zien erakunde publikorik.

Asteari buruz makina ondorio atera nitzake, baina espazio faltaz bata nahi nuke azpimarra: Andoaingo gaztedia, ia inon ez bezalako kontraste sakonetaz dagoela osatua. Baiez-tapen hau pasadizo ilustragarri batez argitzera noa. Hiru Trukuren kontzerturako bidean nindoala, Goikoplazan, Sensacióndeviviren estetika-jarreraren errepikante snobak sumatu nituen: orduntxe, beren kezka trszentalena zera zela zirudien: lehengusu yankiekin nola homologatu, nola izan politikoki zuzenak... Metro batzu haruntzago, La Salleko atarian, beste gazte sorta zegoen. Horiek ere berebiziko kezka; beren eskaintza kulturalak herrian jasoko zuen erantzunaz zai, alegia. Ziurrenik gainera, pertsonalki, Ruperen balada tradizionalak muermo samarrak irudituko zaizkie. Hala ere, euren buruei agindua zioten aste musikala ahalik eta eklektikoena izan behar zuela, eta horri eusten zioten tinko.

Hamaika apegiko gaztedia? nola ez bada! baina ez ahantz herri baten neurri soziokulturala bere sabelean diharduten herri mugimenduek ematen dutela.

Xabier Lasa Bergara

## KOMIKIA



ANDOAINGO  
GAZTETXEA  
Irailak 28  
10 etan...

**BAP!**







# EUSKARA IKASTEKO PRIMERAKO DIRULAGUNTZAK ANDOAINEN!

Euskaraz suelto-suelto hitz egiten eta txukun-txukun irakurri eta idazten ikasteko dirulaguntza bikainak emango ditu Andoaingo Udalak.

Laguntza bereziak emango dizkie langabetuei eta gurasoei.

## LANGABETUENTZAT

- Egunean 2, 3 edo 5 orduko ikastaroak.
- Subentzia: matrikularen %80 edo %90a!

## GURASOENTZAT

- Gurasoentzat aukera berezia: 125 orduko ikastaro laburrak kasi-kasi dohain!
- Subentzia: egunean 2 ordu edo gehiagoko ikastaroetan %60a!

*Etzazu galdu aukera hau!  
Apunta zaituz!*

INFORMAZIO GEHIAGO  
UDALETXEKO EUSKARA  
ZERBITZUAN, HERRIKO  
ESKOLETAN ETA  
EUSKALTEGIETAN



Andoaingo Udala  
Euskararen Normalkuntzarako Lansaila.